

ENPRESEN konfiantza

2023KO 4. HIRUHILEKORAKO
AURREIKUSPENAK


Ikerketa Departamentua – LABORAL Kutxa

2023KO 4. HIRUHILEKORAKO AURREIKUSPENAK




0 | INGURUNEA

LABORAL Kutxak Enpresen Konfiantzari buruzko Inkesta egin die Euskal Autonomia Erkidegoko hainbat enpresari, **2023ko laugarren hiruhilekorako** dituzten aurreikuspenen berri izateko. Emaitzek erakutsi dutenez, aurreko hiruhilekoan baino apur bat ezkorragoa da ingurune ekonomikoa. Zehazki, enpresen % 8,8k uste du egoera hobetu egingo dela oraingo hiruhilekoaren aldean; % 57,1ek uste du bere horretan jarraituko duela, eta, beraz, % 34,1ek, okerrera egingo duela.




1 | FAKTURAZIOA

FAKTURAZIOAri dagokionez, berriz, aurreko hiruhilekoan baino aurreikuspen baikorxeagoak dituzte enpresek **2023ko laugarren hiruhilekora** begira. Zehazki, galdetutako enpresen % 27,3k uste du fakturazioa hobetu egingo dela; % 53,2ren iritziz, antzekoa izango da, eta % 19,5ek okerragoa izango dela aurreikusten du.




2 | JARDUERA

JARDUERARI dagokionez, **2024ko lehen hiruhilekoan** hobera egingo du % 14,6ren iritziz, eta % 21en arabera, okerrera. Laginaren gainerako % 64,4ak, beraz, berdin jarraituko duela pentsatzen du.




3 | ESKABIDEAK

Erantzunok ikusita, zalantza hau sortzen da berehala: zer portaera izango dute salmenten kopuruek eta prezioek, hau da, fakturazioaren eta jardueraren inguruko aurreikuspenen oinarrian dauden gakoek? Ildo horretan, eskabideek hobera egingo dutela eta prezioak igo egingo direla espero da. Ondorengo irudian ageri denez, inkestari erantzun diotenen % 23,4ren iritzian, eskabideen bolumena handitu egingo da, eta % 20ren iritzian, txikitu. Enpresen % 56,6ren iritziz, ordea, bolumena hiruhileko honetakoaren antzekoa izango da.




4 | PREZIOAK

Era berean, PREZIOei dagokienez, honela banatzen dira emaitzak: enpresen % 16,1ek uste du igo egingo direla, eta % 71,7k, bere horretan jarraituko dutela.



5 | ERRENTAGARRITASUNA


Eragiketen ERRENTAGARRITASUNARI buruzko aurreikuspenei erreparatuta, erantzunen % 89,8ren arabera «txikiagoa» edo «berdina» izango da; enpresen % 10,2k soilik espero du etekin handiagoak lortzea.



6 | INBERTSIOA


Orain arte aztertutako datuek aurreko hiruhilekokoaren antzeko ikuspegia erakusten dute, eta, jarraian ikusiko dugunez, badirudi enpresek ez dietela beren inbertsio-planei bultzada berria emango.

INBERTSIO-bolumenari dagokionez, enpresen % 14,6k uste du gora egingo duela **2023ko laugarren hiruhilekoan**. % 18,5en iritziz, berriz, inbertsio-bolumenak behera egingo du. Hortaz, galdetutako enpresen % 66,8 inbertsioek berdin jarraituko dutelakoan dago.



7 | ENPLEGUA

Azkenik, enpresen % 80k erantzun du ENPLEGUAn ez duela aldaketarik espero; % 9,3k langile-taldea handitzeko itzaropena du, eta % 10,7k guztiz kontrakoa egitea aurreikusten du.




2023KO BESTE ADIERAZLE BATZUK



8 KONFIANTZA-INDIZEA ETA ESPORTAZIOEN BILAKAERA


Aurreko adierazle guztiak (inguruneari buruzko iritzia izan ezik) gehitu eta haztatzen baditugu konfiantza-indizea eskuratzeko, emaitza hau lortuko dugu: **49,5**. Beraz, aurreko hiruhilekoaren antzeko balioa lortu da (**49**). Horrek esan nahi du enpresek ekonomiaren bilakaerari buruz duten ikuspegia neutroa dela, **2023ko laugarren hiruhilekoari** begira. Indizea 50 puntu inguruan egoteak geldialdia adierazten du. Datu hori oso antzekoa da beste esparru geografiko interesgarri batzuetan, hala nola Espainian eta eurogunean, lortutakoekin (iraileko datua, hurrenez hurren: 50,1 eta 47,2).

Amaitzeko, inkestako beste gai batzuetan jasotako emaitzak aurkeztuko ditugu; ez dira aurretik azaldutako indizean sartzen. Azken urteko ESPORTAZIOen bilakaerari dagokionez, inkestatuen % 25,5ek uste du hobetu egin direla, eta % 31,4k, okertu egin direla. Beraz, % 43,1ek uste du atzerriko salmentek berdin jarraitu dutela.




9 BERRIKUNTZA ETA I+G ALORREKO EKIMENAK

Azken urtean BERRIKUNTZari edo I+Gko EKIMENEi bideraturiko salmenten ehunekoari dagokionez, inkestatuen % 85,4 balio minimoetan kokatzen da: % 0 eta % 1 artean. Bestalde, % 4,9k salmenten % 5 baino gehiago bideratzen du arlo horietara.




10 | BEZEROEI KOB RATZ EKO EPEAREN BILAKAERA

Inkestari erantzun diotenen % 78ren ustez, bezeroei KOB RATZ EKO EPEAn ez da aldaketarik egon azken urte honetan, eta, enpresen % 16,6ren esanetan, epea luzatu egin da. Hala, enpresen % 5,4k soilik erantzun du kobratzeko epea laburtu egin dela.



11 | BANKUEN FINANTZAKETA ESKURATZEKO ERRAZTASUNA


Amaitzeko, inkestatuen % 73,7k erantzun du bankuen FINANTZAKETA ESKURATZEKO AUKERAK berdin jarraitu duela azken urtean. Gainerako enpresen artean, % 7,8k dio hobetu egin dela, eta % 18,5ek lehen baino zailagoa dela finantzaketa lortzea.




12 | NEXT GENERATION FUNTSAK

Next Generation funtsek industria-sarea berroneratzeko duten garrantzia ikusita, beste bi galdera erantsi dira inkesta honetan: alde batetik, galdetutako enpresek funts horiek ezagutzen ote dituzten eta, bestetik, eskuratu ote dituzten. Ikus daitekeenez, enpresen % 74,6k ezagutzen du plana, baina % 19,3k bakarrik eskuratu ditu funtsak.

Next Generation funtsei buruzko ezagutza



Next Generation funtsen eskurapena






2023AN ADIERAZLEAK IZAN DUEN
BILAKAERAREN LABURPEN-GRAFIKOA

12 ENPRESEN AURREIKUSPENAK

Grafiko honetan, aztertu ditugun azken 3 hiruhilekoetako aurreikuspenen adierazle partzialen eta osoen balioak ikus daitezke.



Fitxa teknikoa eta metodologia

- EAEko 205 enpresek erantzun dute inkesta.
- Irailaren 13tik 29ra egindako inkestak.